

III ATALA

C.- Hormonak.

1.- Farmakologia endokrinoaren kasua

Goiz batean, lehenengo orduan, fisioterapia kontsultara 63 urteko paziente bat hurbiltzen da belauneko tendinitis batek eragindako minak tratatzeko. Berandu heltzen da kontsultara eta lasterka etorri dela ematen du. Tratamendua hartzen duen bitartean, pazienteak koherentziarik gabeko komentarioak esaten dio fisioterapeutari. Fisioterapeutak galdera zehatzak galdetzen dizkio, baina pazienteak, ez du ezta zer eguna den gogoratzen eta erabat desorientatuta dago. Gainera, okadak ditu eta ikusmena lausotzen zaiola nabaritzen hasten da. Fisioterapeutak badakienez, pazienteak intsulinarekin tratatutako 2. motako diabetes mellitusa pairatzen du.

Zer gertatu zaio? Zergatik gertatu zaio? Egoera hori ekiditeko zer egin beharko zen? Arrazoitu erantzuna.

2.- Osifikazioaren farmakologiaren kasua

I.P., 80 urteko atsoa. Adinekoentzat egoitza batean bizi da. Egunero aisialdi aktibitateak egiten ditu bizimodu ahalik eta aktiboen mantentzeko eta gainera beste jendearekin sozializatzeko. Egiten dituen aktibitateen artean gehien gustatzen zaiona da bere egoitzako kideekin lorategira iretetzea eta han dauden loreak zaintzea da. Baina eguraldi txarra eta hotza hasi zirenetik ez da lorategira irten. Momentu horretatik ez du ariketa fisiko handia egiten eta pisua ez hartzeko dietatik arrain eta haragi gantzatsuak erabat kendu diote.

Egun batean egongelako telebista ikusten zegoelarik altxatu zen eta, ez daki nola, lurrera erori zen kolpetxo bat hartuz. Ospitalean egindako diagnostikoak dioenez aldakan fisura bat dauka eta apurtzeko arrisku altu du hezurak oso ahul baititu.

Zer gertatu zaio? Zergatik? Zer egin beharko genuke gertatutakoa ekiditeko. Arrazoitu erantzuna.